



# Kode Etikoa

**AHAL DUGU  
PODEMOS**





# Kode Etikoa

AHAL DUGU  
PODEMOS



Ahal Duguko kidea izateak balio nagusiekin konpromiso etiko bat izatea eskatzen du eta bertan parte hartu nahi duten guztiek onetsi beharko dute. Ahal Dugu herritarren parte-hartze eta batasunerako tresna bat izateko sortu da. Politika berreskuratu nahi dugu pertsonen zerbitzura ipintzeko. Ahal Dugu metodo bat da: demokrazia. Pertsona guztien zuzeneko parte-hartze demokratikoa bultzatzen dugu, bai erabaki politikoetan, baita politika publikoak gauzatzean ere.

### **Ahal Duguko kidea naizen aldetik honako konpromisoak hartzen ditut:**

**I.** Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren aplikazioaren alde egitea, gure gizarteko arlo sozial, politiko eta instituzionalean, gatazken konponketa baketsurantz aurrera eginiz eta edozein motatako biolentziaren aurka.

**II.** Erabakiak hartzeko guneetan eta politika publikoak garatzeko eremuetan herritar guztion parte hartze zuzen eta parekoa sustatzea.

**III.** Subiranotasun herritar eta demokratikoa berreskuratzearen alde lan egitea.

**IV.** Gizartean zein Ahal Dugu-ren barruan berdintasuna sustatzea, arrazakeria, xenofobia, maxismo edo genero identitate nahiz sexu orientazioarengatik bazterketa ororen kontra borroka eginez. Horrez gain, Ahal Dugu-n emakumeen parte hartze politikoa bultzatu beharko da eta gune bakoitzaren arautegien barruan erakundearen ekitaldi eta asanbladetan haurtzaindegiak prestatzeko beharrezana jasotzea.

**V.** Ahal Dugu-n partaidetza beti librea, borondatezkoa eta, estatus zibil edo sozialaren bereizketarik gabe, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren defentsan eta herritarren parte hartze herritar eta zuzenaren metodo demokratikoan bat egiten duten pertsona guztiei irekia izatearen alde egitea.

**VI.** Iritzi guztiak zintzotasunez debatitzea eta pertsona guztiak errespetatzea, beren usteak edozein direlarik ere, elkarrizketa eta adostasunaren bilaketa bultzatuz.

**VII.** Ordezkaritza politikoko edozein erakundetarako (udal, diputazio, parlamentu autonomiko, diputatuen kongresu, senatu, Europako parlamentu edo beste edozein) hautagaien aukeraketa herritar guztiei irekitako hauteskunde primarioen bidez egin dadila exigitzea eta errespetatzea. Genero irizpideen arabera bakarrik zuzentzeko moduko zerrenda irekiekin egingo da. Transfugismoa gaitzestea eta alde aurretik herritar guztiei irekitako primarioen prozesu batean halako funtzioa betetzeko aukeratua izan ez bada inongo kargu hautatu ezin dadin Ahal Duguren partaide izan zaintzea.

**VIII.** Edozein formazio politikorekin hauteskunderen aurreko edo ondoko edozein hitzarmenek lurralde ordezkaritza maila guztietan herritar guztiei irekitako kontsulta baten bidezko onarpen demokratikoa izan dezan exigitzea eta errespetatzea.

**IX.** Edozein kargu hautatu bere agintaldi osoan zehar hartuko dituen erabakiak partaidetza metodo ireki eta demokratikoaren mende jartzera behartuta dagoen ordezkari hutsa izan da-din exigitzea eta errespetatzea.

**X.** Ahal dugu-k bere kudeaketa ekonomikoan lukuruan oinarrituriko erakundeen finantziario banku produktuak erabil ditzan eragozte. Horren haritik, bankuen bidez finantzatzeko aukera berariaz baztertzen da, bada.

**XI.** Orain arte, politika interes pribatuen aginduetara dagoen gunea izan da. Ahal Dugu hori gehiago ez gertatzeko plataforma izango da, eta horretarako Ahal Duguren kargu hautatuek eta barne-karguek zera onartuko dute:

**a)** Ordezkaritza-maila bakoitzeko jarriko den soldata-muga. Edozein diru sarreratan gardentasun osoa bermatu beharko da, baita bere ondarearen kudeaketa gardena ere. Kontu publikoak ematea guztiz derrigorrezkoa izango da.

**b)** Pertsona bakoitza zenbat funtzio-publikotan aritu ahalko den ezarriko den muga. Haiengatik soldata bakarra jasotzea, hiru gutxieneko-soldata baino gutxiagokoa izan ezik.

**c)** Ordezkaria izateagatik edozein abantaila juridiko edo pribilegio material uko egitea, kargu publikoa izatearen erantzunkizuna izanik, forudunaren irudi juridikoan babestea ekiditea.

**d)** Gardentasuna eta kontuak ematearen konpromisoa ordezkari osoan zehar, baita amaieran ere.

**e)** Karguari ez dagozkion interes pertsonal, ekonomiko edo politikoak izatean, erabakiak hartzetik urrundu eta kargurik ez onartu. Herri Kontseiluak garatuko dituen Bate-raezintasun Erregimenak helburutzat izango du puntu hau bermatzea, bai etikoki, baita araubideari dagokionez ere, eta sufragio pasiboaren eskubidearen murrizketa jasoko du barne antolakuntzako kide edo estatu mailako erakunde politikoentzat.

**f)** Kargu publikoak nork bere gain hartu ostean, ordezkari gisa lanean aritu bitartean zenbait enpresa pribaturi kargu publikoak eskaini zaizkienean, debekaturik dago enpresa pribatu horietan inolako kargu exekutiborik edukitzea 10 urtez, eta inoiz ez sektore estrategiko konkretuetan zein nazio-mailan garrantzia ekonomikoa duten enpresen administrazio-kontseiluetan; modu berean, debekaturik dago kargu publikoaren jarduna dela eta eduki daitezkeen onura fiskalez baliatzea.

**g)** Garantia eta Eskubide Batzordeak publikaturiko arautegian jasotzen denaren arabera -non betiere kontuan hartuko diren ustelkeri delituak, ekonomikoak, sexu-jazarpena, genero-indarkeria, pederastia, haurrekiko tratu txarrak, ekologikoak, urbanistikoak eta langileen eskubideen aurkakoak- falta eta delituengatik inputatua, prozesatua edota kondenatua izan ezker, kargu publikoari uko egiteko konpromisoa.

**h)** Ahal Duguren kideak edota bere senitartekoek interes ekonomikorik eduki ditzaketen enpresa publikoetan kontratazioa saihestea.

**i)** Alderdiko kargu publiko edota barne karguentzako zortzi urteko agintaldi-mugaketa; ohiz kanpoko kasuetan hamabi urtekoa izan daiteke.

**j)** Laikotasuna bultzatu, erlijiorik babesten ez duen eta kontzientzia-askatasunean oinarriturik dagoen sistema demokratikoa sustatuz.

**XII.** Gainera, **edozein administrazio publiko** edo horien menpeko entitateetan **ahal duguk izendatuta kargu batean daudenak** honakoa onartzeko konpromisoa hartzen dute:

**a)** Izendatuak izan diren postuetan beren eginbeharra apaltasunez, moralitasunez, gardentasunez eta herritarrekiko leialtasunez betetzea, ondasun publikoen erabilera ona eta balibaide publikoak efizientziaz, ekitatez eta eraginkortasunez kudeatzea helburu.

**b)** Ordezkarizateaz zuzenean eratorritako inolako pribilegio juridiko edo material ez izatea, kargu publikoaren erantzukizunetik edonolako foruduntza judizialik izatea saihestuz.

**c)** Erantzukizun maila bakoitzerako ezartzen det soldaten muga orokorra onartzea, inolaz ere ezin delarik, administrazio publiko bakoitzean eskatzen den sarrera tituluko (A1, 12, B, C1 eta C2) maila bakoitzeko talde funtzionarioial edo laboral bakoitzeko soldata maximoa gainditu, langabezia kotizazioei dagokiena salbuetsita.

**d)** Uko egitea administrazio eta enpresa publikoetako beste langileen hitzarmen kolektibo edo soldata erregimenetan ezarritako soldata baino handiagoa jasotzeari, eta baita beste edozein osagarri edo soldata-kontzepturi ere. Ez da inolako pribilegiarik egongo. Soilik osorik aplikagarri izango zaien hitzarmen kolektiboko eskubideak aplikatuko zaizkie.

**e)** Inolako soldata edo diru-sarrerarik ez jasotzea, beren izendapena edozein delarik ere, beren funtzio publikoen ondorioz edozein entitate edo organismo publikotako Administrazio kontseiluan parte hartzeagatik.

**f)** Dagokion administrazio publikoak kontratatu ahal izan duen edozein pentsio-plan edo fondori uko egitea, langile publikoek eskuragarri dituztenak salbuetsita. Ez da, jubilazio eskubideei dagokionez, Gizarte segurantzak, Estatuaren klase pasiboek edo administrazioak bere langile publikoentzat kontratatuak dituenak baino eskubide gehiago izango.

**g)** Funtz publikoen gastu soberakorik ez egitea eta garraio eta ostatu kostuak neurtzea, funtzionario eta beste langile publikoentzat ezarritako dieta eta kalte-ordainetara egokituz. Desplazamendurako, ostaturako edo mantenerako kalte-ordainik behar izanez gero, ezin izango dira funtzionario eta langile publikoentzako ezarritakoak gainditu, ez eta, enpresa publiko eta antzeko organismoek dagokienez, horietako langileek hitzarmen kolektiboaren arabera kobratzen dituztenak gainditu ere. Administrazioari goi kargu izatetik eratorriko dietei uko egingo diete.

**h)** Kargua uztean inolako diru sarrera edo kalte-ordainik ez jasotzea. Aldez aurretik lanpostu publiko baten titularrak zirenak bertara edo soldataz, dedikazioz, esparruz eta udalerriz parekoa den beste posturen batera itzuliko dira, horietan dagokion epeetan hasiz lanpostuen probisiorako prozesuek ezarritakoaren arabera. Lanpostu publiko bat ez zutenek dagokion langabezia laguntza kobratuko dute.

**i)** Goi karguen titular direnek uko egingo diote auto ofizial baten esleipen iraunkorrari, Estatuako segurtasun indarrek babes pertsonaleko arrazoiengatik espreski kontrakoa aholkatzen dutenean izan ezik. Beste edozein kasutan, ibilgailu ofizialak zerbitzu publikorako ezinbestekoa denean baino ezingo dira erabili, gainerako langileen antzerako baldintzetan, eta inolaz ere ez norberaren etxebizitzara joan-etorrikerik egiteko edo funtzio publikoekin loturarik gabeko beste egitekoetarako.

**j)** Jenerotan eginiko inolako kobrurik ez onartea, bereziki alokairurako laguntzei dagokienean pertsonak bere funtzio publikoak betetzen dituen udalerrian edo inguruetan etxebizitza -jabetzan edo alokairuan- duenean. Lanpostua dagoen udalerrian etxebizitzarik ez balu eta laguntza jaso beharko balu, honen zenbatekoa justifikatua izanen da, eta etxea duina eta bere familiaren premietarako egokia.

**k)** Indarrean dagoen legedian aurreikusitako abstentzio-betebeharra errespetatzea.

**l)** Ahal Duguk izendatutako kargu publikoek beren funtzioen jarduna demokratizatze konpromisoa hartzen dute, bai eta herritarrei tratatu duin eta humanoa ematekoa ere, bereziki baliabide ekonomiko, sozial edo kultural gutxien duten pertsonen dagokienean; halaber, hala eskatzen duen pertsona oro entzuteko konpromisoa hartzen dute, ezingo delarik betebehar hori bere menpeko pertsonalari delegatu.

**m)** Kargu publikoen titularrek pertsonalaren eginkizunen betetzea, ahalduntzea eta euren kargupeko antolatze publikoaren hobetzea bultzatu beharko dute, erantzukizunen gain hartzea sustatuz zein pertsonalari bere eginkizunen betetze egokiagatik errekonozimendu publikoa eskainiz.

Euren menpeko pertsonalaren jarduerak modu objektiboan ebaluatzea eta edozein diskriminazio motaren zein mobbing-aren aurka borrokatzea onartzen dute.

Lan-eremuaren giroa hobetzea, lan-arriskuen prebentzioa, lan-egoeraren hobetzea eta ingurugiroarekiko errespetua sustatuko dute.

Gizarteari zuzenduriko gestio publikoaren hobekuntza sustatuko dute, euren kargupeko antolakundearen helburua ezarriko dute aurreikusitako plan eta programei jarraiki eta balore etiko eta demokratikoak zabalduko dituzte hauek bete daitezen, betiere ustelkeri eta iruzurrak gogorki jazarri. Aldizka gestioaren eta gidaritzaren ebaluazioak jasoko dituzte.

**n)** Jokabide autoritarioak eta ez-demokratikoak arbuiatzen dituzten eta gardentasun, kontu-emate eta ate irekiak aurkezten dituzten lan eremuak sortu eta erraztea.

**{ Konpromiso hau askatasunez onesten dut, hemen aurkeztu diren puntu guztiak ulertuz zein euren defentsa onartuz, bidezkoagoa den eta pertsona guztiak askeagoak izango diren gizarte baten eraikuntza ziurtatzeko. }**